


ZENBAKI POSITIBOAK ETA ZENBAKI NEGATIBOAK

Batzuetan eguneroko bizimoduko egoera batzuk adierazteko zenbakiari zeinu bat gehitu behar izaten diogu. Adibidez,



- Aurrean plus zeinua (+) duten zenbaki arruntak **zenbaki positiboak** dira eta zerotik gorako tenperaturak adierazteko erabiltzen dira.
- Aurrean minus zeinua (-) duten zenbaki arruntak **zenbaki negatiboak** dira eta zerotik beherako tenperaturak adierazteko erabiltzen dira.
- Zenbakiak zeinurik ez daramanean, positiboa dela ulertzen da.

1) Adierazi egoera bakoitza zenbaki positiboa edo negatiboa erabiliz.



Dracoren erratza laugarren sotoan dago.

Hogsmeade herrian tenperatura 12 gradu daude zero azpitik.



George Weasleyren erratza berrogeita hamar metroko altueran dago.

Hermionek nahi duen liburua bigarren sotoan dago.

Neguan Privet Driven 8 gradu daude zero azpitik.

2) Zer zenbaki positibo edo negatibo erabiliko zenuke egoera bakoitza adierazteko?



Mandragora 25 zentimetroko sakoneran dago.

Globoa hirurogeita hamabost metro alturan dabil.

Urpekaria hamazazpi metro sakoneran dago.



Helikopteroa berrogeita bost metro altueran dabil.

Automobila zazpigarren sotoan dago.



Hedwig hogeita hamahiru metro altueran dabil.

Harri filosofala 85 metroko sakoneran dago.

3) Margotu adierazten diren graduak.

+ 13

- 4

+ 9

-9

